

### 1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	13.454 biztanle
Zabalera:	277,73 km <sup>2</sup>
Nafarroa2000ko zer eskualdetakoa:	Erriberagoiena ( <a href="#">ikus mapa</a> )
Udalerriak:	Faltzes, Funes, Martzilla, Azkoien

### 2. Komunitatea eta osasuna

Azkoiengo eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboil itxura du; 35etik 60 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Biztanleria maskulinizatua ageri da tarteko adinetan. Azkoiengo eskualde oinarrizkoak handienetakoak ditu jaiotza tasa (%10,3), 14-19 urteko amak dituzten jaioberrien tasa (%10,7) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen portzentajea (%44,4).

Azkoiengoa emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean artean dago, gizonezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (81,2 urte). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago, diabetesa diagnostikatua duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%7,9) eta emakumezkoen eta gizonezkoen antsiolitiko eta

antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%18,5 eta %10,1, hurrenez hurren).

Nafarroa2000 zonifikazioan Azkoiengo eskualde oinarrizkoa Erriberagoieneko eskualdean dagoenez, aurrekoen gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Erriberagoienari dagozkion adierazleak, bizimoduak, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Erribera Goieneko eskualdean emaitza hoberenak agertzen dira gazteen alkohol kontsumo intentsiboari dagokionez (%28,2). Kontrara, eskualde honek emaitza okerrenak agertzen ditu tabakoaren eguneroko kontsumoari dagokionez 14 urtetik goitikoen artean (%25,0), bereziki gazteen artean (%28,4), baita gazteen sedentarietateari dagokionez ere (%27,5).


### 3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateak eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

## 4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



**Adierazleen iturria:** 1-2: Bizit. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizit. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

# Nafarroako Erriberagoieneko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

\* Nabarmen desberdinak ( $p < 0,05$ ) Nafarroako emaitzatik (bizimoduen, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea).

**1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia arriskuaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia arriskuaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.**  $\geq 65$  urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren  $\geq 80$  urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduerara fisikoki urria edo batera egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunetan kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten  $\geq 15$  urteko pertsonen %; **14 y 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 20,4 eta gizonezkoak 9,7); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score  $\geq +2$ ); **17.** 2 motako diabetesa duten  $\geq 20$  urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 8,8); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua duten neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.